

ahotsak eta itzalak

Maixa Zugasti

n a r r a t i b a

erain

AHOTSAK ETA ITZALAK

Narratiba, 110

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2018ko martxoan

Patxi Ezkiagak egin ditu liburu honetan ageri diren
R.L. Stevenson, J. Verne eta C.Dickensen testuen itzulpenak

Maketazioa:

Itxaropena

© Maixa Zugasti

© EREIN. Donostia 2018

ISBN: 978-84-9109-286-5

L. G.: SS - 302/2018

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

Maixa Zugasti

AHOTSAK ETA ITZALAK



Aitari

*Nada me pertenece
sino aquello que perdí.*

J.M. CABALLERO BONALD,
El papel del coro

*Erbeste denbora lohia da,
denboraren gaixotasuna,
zauritzen eta hiltzen duen
oroimenaren denbora,
oldarka eta zelatan dabilen
ilunpearen denbora.*

Felipe JUARISTI,
Begi-ikarak

I ATALA

ETXETIK ESKOLARA BIDEAN aitarekin irten ginen goizak 1936ko udaberri-amaiera euritsu hartako beste edozein zirudien, itxura batean behintzat: anaia txikiari eskutik heldu eta ez nuen askatu, amaren esanei kasu eginez, trenera sartu arte. Herriko nagusiek ere horrelaxe gogoratuko gintuzten urte asko geroago: Antonioren semeak ginen, enparantzako platanondoan gerizpetik jolasean zebiltzan haurrei begira, beti elkarrekin egoten ginenak. Gu ez baikinen apaizetxearen ondoko eskola txikira joaten. Horrexek bereizten gintuen beste haurrak eta gu: aitak, aukeran, nahiago izan zuen gu hiriko beste eskola batera eramane.

Uda hastear zegoen eta etxekoneko Martak ez zuen ezer apartekorik sumatu goizeko ohituretan, amak, gu agurtzeko altxatutako besoa jaitsi gabe, egun onak ohi bezala eman zizkionean. Gauzak, iluntzean okertu ziren. Hala ere, Martak zioenez, herriko jendeak astebete inguru behar izan zuen astelehen arratsalde hartan etxera ez ginelaz itzuli ohartzeko, eta, horretan, amaren izaera isilak zirikusi handiago izan omen zuen bizilagunen jakin-minak baino.

Berrogei urte geroago, behartutako oroimenak behin eta berriro ipintzen dizkit bi haurrak itzulerako tren haren barruan. Orduan, oraindik ez nekien egunaren amaierako ilunarekin nire barruan zizelkaturiko arraildurak etengabe sakontzen hasiko zirenik. Gauean, nireak ez ziren galtza luze haien barruan oharkabean tupust egingo nuen helduen munduarekin, eta Luis, berriz, umeago bihurtuko zen.

Arratsaldero, itzulerako trenera igotzen ginenean, eseri eta Luisen leihoko islari begira geratzen nintzen. Alboan aitak, burumakur, begiak magaleko liburuan galdurik izaten zituen.

Ezerk ez zuen adierazten egun hura beste asko bezalakoa izango ez zenik, baina, arratsalde hartan, ezohiko zerbaite gertatu zen: Luisi geldirik egoteko jertsetik tira egin nion unean bertan, parez pare neukan gizona ikusi nuen. Haren janzkera ez dut oso ondo gogoratzen, baina soinean zeraman trajeak utziko zuen, ziurrenik, nigan, irudi ilun haren arrastoa. Trenaren bat-bateko mugimenduek agerian ipintzen zuten alkandora zuriaren gainean aldaroka zebilen gorbata beltz luzea. Kapelak gerizpean gordetzen zuen begi zoliez begira neukan gizonaren aurpegia, maitetan ditudan filmetan bezala; kale-kantoiko farolak zelatan dagoenaren aurpegia iluntzen duen modu berean, leunki argizaturiko euripean. Behe-lainoak izaturiko gaueko iluntasunean leiho bat zaintzen duen detektibe luze baten moduan, soa garondoan sentitzean soilik bota zuen kapela atzera, eta ketan galduriko aurpegi zuria agerian utzi.

“Gizon hori..., aita, gizon hori...”. Hitzak eztarrian itotzen zitzaizkidan. Inguruko jendearen mugimenduek, geltokietan jaitsi edo igotzen ziren gizon emakumeek ez zuten lortu irudi zurrun hura mugitzerik. Hantxe jarraitzen zuen zutik, begiak nigan josita.

–Tunelaaaaaa! Bukatu da tunelaaaaaa! –oihu egin zuen Luisek, eta bagoiko jendea barrez hasi zen.

Aitak begi irritsuez begiratu zion betaurrekoen gainetik. Ondoren, ezpain zimurtuen gainean jarri zuen hatz luzea. Luis keinu hura errepikatzen saiatzen zen. Ezpain-txoek, ordea, ihes egiten zioten hatz txikiaren ertzetatik. Horrek amaiarazten zuen gure goiz eta arratsetako erritua.

–Tunelaaaaaa! Badator tunelaaaaaa! –Hori izaten zen jolasaren hasiera, begi beltz txikiak ilunpera ohitu zitzaizkionean. Lehen bidaietan, ilunak beldurtu egiten baitzuen Luis, edo argiak sortutako itzalek...

Jendea lasai zihoan trenean. “Nire irudimena besterik ez da”, pentsatu nahi izan nuen, gizon hura beste edozein bidaiariren modukoa zela neure buruari sinetsaraziz. Itzal ilun haren begirada, ordea, nahita ere, ezin nuen gainetik kendu; Jim Hawkinsen ausardia gogoan, zeharka begiratu nionean, zuhaitzak laster batean igarotzen ikusi nituen haren atzeko leihoan. Ordurako, gizon hark jakingo zuen bere begirada ilunari eusteko gauza ez zen mutikoak kol-darra behar zuela izan.

–Arturo, begira, sua! –egin zidan deiadar Luisek. Eta nik beraren ondora egin nuen salto. Ez nuen surik begiz-

tatu, ordea. Gizon beltza nuen begi-ninietan, eta parean zuhaitzak eduki arren, huraxe gogoan. Aita sua bazela eta ez zela, Luisekin hizketan ari zen. Nik aitak gizona ikustea nahi nuen.

Begiratu egin zidan.

“Ondo?” galdetzean, buruarekin baiezko urduri bat egiteko gauza besterik ez nintzen izan.

Orduantxe, bat-batean, jarri zen aita serio. So egin nion; berak, serio, niri; ondoren, atzera; niri, leihora, erlojura... Ateak ireki bezain laster, geltokira salto egin genuen: Luis besoetan zeraman; ni, eskutik. Hura ez zen gure geltokia. Otu zitzaidan, agian, mutiko tristeak hartuko zituela nire kanikak, trenean eskolako poltsaren barruan geratu baitziren.

Aita, ni arrastaka eramanda, korrika hasi zen jendar-tean. Ezin ezer ikusi, tiraka, ia airean neraman besoari jarraitzea zen nire ahalegin bakarra, jende andanaren erdian. “Korri, Arturo, korri!”. Haren esku barruan, nirea; arnases-tuka, kasu egin nion. “Azkarrago!”, berak, ahots larri baina sendoz. Haatik, ezin nuen arinago; jada ez nuen hankarik...

Luis negar-zotinka hastearekin batera sartu ginen taxi batean. “*Bilbo* kafetegira, azkar!”, agindu zion aitak. Gu haren hankapean jarri ondoren, txapela kendu zuen ziurtasunez. “Altxa gabe!” izan zen ahots irmoz guri emandako ordena. Eta hantxe joan ginen makurtuta, txintik atera gabe. Ez zebilen jolasean. Luisen begi beldurtuak aitaren hanka artetik niri begira nituen. Isil-isilik zihoan gaixoa.

“Ar-ar-ar-tu-tu-ro!”, hots egiten zidan totelka noizean behin. Bidaiaren amaiera hurbil zegoenean, aitak jakaren bihotz aldeko barne-poltsikotik gutun-azal bat atera eta billete sorta bat jaurti zuen aurreko eserleku hutsera.

Gidariak dirua gorde zuen eta, begi-bazterretik guri begirada errukitsu bat bota ondoren, deabruak balerama bezala gidatu zuen. Abiadurak eragindako balantzari eusten saiatu ginen gu. Gidatzeko modu trakets baina azkar hura izan zen aita apur bat lasaitu zuen gauza bakarra. Begitartea izutzen zion beldurrak eraman zuen aita ihes egitera; eta orduan patua zirudienak, ama etxean geratzera. Gu, jitoan, noraezean, zihoazen bi haur besterik ez ginen.

–Arturo! –Luisek, belauna ukituz.

–Piratak, piratak ditugu atzetik –erantzun nion barre egitera behartuz.

Aitaren esku iharra sentitu nuen niri ilea nahasten, losintxa baten keinuan. Haren begi alderraiak, ordea, kanpoan zebiltzan, urrun. Lurralde euritsu honetan ere, bada basamortuko ametsezko irudipen lehorren parekorik. Gure itsasoak barru-barruraino irensten duen zeruaren kolore ilun eta sakonari begiratu nion. Une hartan, aitaren betaurrekoak ere atzeko leihoan galdu ziren.

–Zeer..., Arturoo? –Luisek, jakin-minez, bioi begiratu. Zu kapitaina?

–Ez, ni ekaitzik ba ote datorren ziurtatuko duen marinela naiz. Zure aginduetara, kapitaina! –ihardetsi nion entzungor, jolasezko aginduari. Gorantz begiratu nahi

nuen: etxeak, zuhaitzak, hodeiak, etxeak eta zuhaitzak. Zeru hitsa.

–Hodei ilun astunak urruntzen istriborretik! –erantzun nion, erauntsiaren beldurrez pausoa azkartuko zuen jendea ikusi ezin eta kale hutsen beldurra gainditu nahian–. Ekaitzik ez, kapitaina.

Zuhaitzak besterik ez; zeru abarreztatua. Noizean behin agertuz joan ziren eraikuntzak gero eta hurbilago genuen herriren bati buruz ari zitzaizkidan: etxe bat, bi, berunezko zerua estaltzen zuten platanondoak, eta etxeak, etxeak, etxeak...

–Mantsoago... –agindu zion aitak gidari mutuari–. Etxadiari beste bira bat eman ostean, kale-kantoi horretan utz dezakezu autoa.

Aitaren arreta urduria nahikoa izan zen gu isilarazteko. Begiak alde guztietan zituen gidariari adi, ez nuen hitzik ere galdu nahi.

–Ez digu inork jarraitu, jauna –baieztatu zion aitari autoa geratu eta guri eskua harro luzatzen zigun bitartean–. Zorte on, marinela! –entzun nuen, bizar zuririk izan ezean, itsasgizon itxura ematen zion orbainari begiratuz.

Ustekabeko aitaren bultzada artegak autotik urrundu eta *Bilboko* sukalderaino sartu ninduen, ziztu bizian. Jim Hawkinsentzat eta haren amarentzat “Benbow almirantea”ren ostatua bezalaxe, ezkutaleku hura aldi berean gure aterpe eta satarte bihurtuko zen.

Geroztik, berrogei urte luze igaro badira ere, izuaren zirrara barru-barruan sentitzen dut oraindik, sugandila egonezin bat balitz bezala. Batzuetan, abiadurak oroime-
nean utzitako ziurtasunak gizon hark gauzak ondo egin zituela pentsarazten badit ere, besteetan, denboraren distanz-
tziak barnean iradokitzen didana zartada baten modukoa da; agian, zortea izan genuen lagun bakar aldi latz haren lehen egunetan. Arriskua sumatzen duena adi baitago gerrate usaina hurbiltzean... Aita gu babesteko adi-adi bizi zen. Hori da orain daukadan ziurtasun bakarra. Eta Maria? Eta ama? Sarritan, bizirauteko, erantzunik gabeko galderak alboratu egiten ditut, eta, aita behin eta berriz trenean niri begira ikusten dudanean, pentsatu nahi izaten dut beldur-
raren itzal beltza azkar ikusi zuela nire bihotz-begietan.

Nolanahi ere, aitaren ezpainetan behin besterik ez nuen entzun kontakizun hura eta ez zuen trenean gure zelatan zihuan gizonik aipatu ere egin. Aitortu zidanez, berak orduan kezka bat besterik ez zuen: bere nagusiak esandako gizona aurkitu behar zuen geltoki ezezagunean. Gure zain egongo zena besamotza zen eta ezkerreko mahuka hutsa poltsikoan gordetzen zuen. Itxurazko ibilera herren baten aitzakia zela eta, makila bat eramango zuen eskuineko eskuan. Huraxe airean astinduz agurtu behar gintuen geltokiko ate zabaletik. Haatik, gu begiztatu orduko, laster alboratu zituen bai agur-keinua egiteko erabilitako makila bai ibilera urguna ere. Norbaitek alde zurretik esana zion aitari gizon harekin kontuz ibiltzeko,

pistola eramaten zuela beti hutsa zirudien berokiko poltsikoan, esku ezkerraren luzapena balitz bezala, eta harekin bat baino gehiago jarri zuela heriotzari begira. Zirrara hotz batek bizkarra astinduko ez balit, kontu horiek film baten oroitzapen urrunak irudituko litzaizkidake, aspaldiko zuri-beltzezko gerra-film baten irudiak, besterik ez.

Nire hanka-sartze batek apurtu zuen egun hartako kontakizuna. Idazle-senak ez zuen kontuan hartu aitaren izaera, eta informazio garrantzitsu hura galtzeko beldur nintenez, biharamunean haren hitzak grabatzeko nahia agertu nion. Proposamenaren amaierara iristerako, agure-begirada finkoa kontu haien iraganeko erreinuan galdua zen. Sarzina gure egongelaren erdian, isiltasuna errotu zen, aingura herdoildu bat balitz bezala. Nire errua izan zen.

Hurrengo arratsaldean, grabagailua profesionalen moduan mahai gainean jarri bezain laster konturatu nintzen nire akatsaz. Lozorroan aurkitu nuen aita, eta bizpahiru aldiz saiatu arren, ezin izan nuen esnatu. Huraxe izan zen tresna hura erabili nuen azken aldia.

Haren lagun min Dionisioren ustetan, urte horretanxe hasi zitzaion gandu moduko bat buruko ideiak estaltzen. Noizbehinka, nahasi egiten zituen gure izenak ere, eta grabazioak arratsalde haietako bat ekartzen dit albora. Horrelako egunetan, barne-zentzu batek lozorroan murgiltzen zuen, heroi batek etsai gogorren aurka babestuko duen ezkutu bat izaten duen bezalaxe. Hitz nahasi haietan, ordea, gure haurtzaroa argitzeko taxuzko zerbait aurkitu

nuen, izen bat: Leonardo, aitak lan egiten zuen banketxeko zuzendaria, ihesa prestatzen lagundu zion laguna, ondorengo nire peskizetan, maiz agertuko zen izena.

Bilbo kafetegiko atea zeharkatzearekin batera, ingurua txukuntzen bainoago gure zain zirudien gizon batekin egin genuen topo. Barnean, egurrezko aulki ilunek uharteen bakardade dotorean gordetzen zuten mahaien marmolezko zuritasuna, harresiz inguratutako ametsezko labarrak balira bezala. Aitaren larritasuna nahikoa izan zen, tabernaria zirudien gizon batek, Migelek, lana bukatu gabe uzteko. Gure atzetik sukaldean sartu zen, baina, atea irekita utzi zuela ohartzean, urduri, berriro, jangelara itzuli zen. Kontraleihoak ixtean, atearen zirrikitua ezabatu eta iluntasuna gailendu zen kafetegian; irratia itzaltzean, isiltasuna. Horrelaxe utzi genuen guk ere egongela goizean, isilpean ilun, amari muxu eman eta etxetik irten ginenean. Sarritan pentsatzen dut berari ere gure ihesaren iluntze eta gau luzeegiak eguna motz eta gaua amaiezin bihurtuko zizkiola.

Migel, berriro sukaldean urduri, egonezin, sartu zenean, mantal zuri-zuria erantzten ari zen. Erdi-erdian zutik geratu eta estu besarkatu zuen aita. Nahiz eta haren emazte zirudienak Luisekin jolasteko imintzioak egin, bi gizoni begira geratu ginen guztiok.

–Momentu bat –esan zion aitari gizon argalak.

Tiradera batetik ateratako orri zuri batean, “Heriotzagatik itxita” idatzi zuen arkatzez. Galdezka hasi nintzen eta, aitaren erantzuna azkarra izan bazen ere, inoiz ez nuen ja-

kin nor hil zitzaien *Bilboko* kafetegiko Migeli eta Joakinari. Ez dakit emakume hark jakingo ote zuen ere hildakoaren berri, tristuraz bainoago larritasunez irakurri baitzituen senarrak idatziriko hitzak. Ondoren, Luis jada bere itzal zuela, kanpoko atean eskegi zuen bezeroak urruntzeko orri hura, denon lasaitasunerako. Itzuli eta atea itxi zuen. Hantxe geratu ginen guztiok, iluntasunez inguraturik.

Sukaldea kafetegiaren barneko zoko batean zegoen, barraren ondoan hasten zen korridore motzari amaiera emanaz. Txikia eta zuria zen, leihatila bakarrekoa. Aitarren kezkei erantzunez, Joakinak leiho txiki haren beste aldean zegoena erakutsi zion eta neu ere gerturatu egin nintzen. Gorantz begiratu eta patio estu bat ikusi nuen, tximinia luze bat zirudiena. Urrunean, zeru zati txiki bat nuen zelatan; itsasargiaren begia balitz bezala, ilargiaren lehen izpi-inarrek oraindik argitu gabeko lainoen iluntasuna zuen. “Inork entzungo al gaitu?”, jaurti zuen aitak.

–Ez, lasai... Bidaiari ekin baino lehen, mokadu bat –esan eta Joakinak jateko zerbait ipini zuen, mahai zuriaren gainean.

Migelen sartu-irtenek bistan utzi zidaten kale zatian, ekaitz indartsuak ilunaurrea estalia zuen jada. Laster, ordua baino lehen, erauntsi zakarrak gau betean murgilduko gintuen. Autoko zeru-zati argiez gogoratu nintzen. “Jantzi berokiak, gaur euria egingo du eta”, esan zigun amak goizean. Gure herrian, eguraldia azkar aldatzen da, eta amak oso gogoko izaten zuen haizeari begira egotea, urrunetik, gure

etxe aurreko zuhaitz adarretara ekaitza nola ekartzen zuen ikustea. “Haizea ez, ama; hostoak dira, adarrak, zuhaitza” erantzuten genion, barrez, berak besoa luzatuz altzifre zaharra zakar kulunkatzen zuen haizea erakusten zigunean.

Urte asko igaro dira eta orain, txikia, txikiegia iruditzen zaidan mutikoa afalosteko lozorroan ikusten dut sukalde zuri-zuri hartan, begiak itxi eta ondo oroitzen duen amarekin jolastu nahian. Bere begien barruan ama ikusten du, Mariari bularra ematen, aulki txikian eserita. Luisi artilezko mataza uzten dio jolasteko, eta, bitartean, berarekin “ikusimakusian” jolasean dabil.

Orain, urteko egun gehienak hoteletako geletan igarotzen ditudan garai honetan ere, lehengo egun haiek datozkit sarritan gogora. Eta amaren irudia gardentzen didate. Begiratzen diet leihotik kale ezezagunei, baina ez ditut ikusten; haur hari *Bilboko* sukaldean gertatzen zitzaion bezalaxe, barne-begiek amaren irudia indartzen baitidate, nahiak –eta ohiturak– lagundurik. Iluntze hartan, Joakinak hanka zuztarrak estali zizkidan, hotzak kuzkurturik bainituen. Ondoren, autoan, nirekin eramango nuen gainean ipini zidan artilezko estalkia ere; gau hotz batzuk geroago, oraindik, *Bilbo* kafetegiko usaina zabaltzen zuen Sarzinako Dapestegui Baithako logelan. Gure jantziek, berriz, aspaldi galdua zuten etxeko usaina.

Aita beti izan zen gizon kezkatu eta urduria. Etxean, amak laguntzen zion buruhaustek uxatzen; han barruan, Joakinak hartu zuen ardura hura eta lasaitzeko erregu-

tzen zion, arrazoi batzuk emanaz: ez gintuzten salatuko ez tximiniatik ateratako keak ezta sukaldeko soinuek ere. Hirugarren solairuko bizilagunak kanpora joaten ikusi omen zituen, maleten zamak okerturiko autoan; eta bigarrenan, gure berri bazuen beraren lagun alargun bat bizi omen zen. Berari esker, sukalde hura gure gordeleku bihurtu zen, eta patio luzeko argi zuhaila, gure lagun. Behin eta berriz entzundako erretolikan, hitz horiek iduneko baten ale modukoak bihurtu ziren.

Orain, sarritan, zalantzek eta galderak buruan gainezka egiten didatenean, pentsatzen dut agian, gure susmo berek bultzatu zituztela bizilagun haiek ihes egitera; baina zergatik ez ama eta Maria? Urteetako itzal ilun astunek esaltzen naute horrelakoetan berriro; estalki saihetsezinek.

Ondorengo guztia zirimola batean nahasten da nire oroimenean: inguruan, sukaldea ilunduz joan zen, eta, ordurako, Migelen ahotsak ametsezko doinua zuen. Itxaropen isil batek hartu ninduen: guztia amets bat izan zitekeen, eta, goizean, amaren ahots leunak hautsiko zuen mahuma.

Migel sumatu nuen aitarekin hitz egiten, eta nire ametsetako zurrumurrua mendiz egin beharreko bide bati buruz ari zen, muga bati buruz, zain edukiko genuen gizon bati buruz. Ondorengo gertakizunen joanak jantzi zituen ziurtasunez behinola entzun uste nituen kontuak, nekea urduritasunari gailendu eta loak hartu baino lehen aditutakoak. Gaua zen, gau itxia, eta amaren goizeko mugimenduak urrun, oso urrun ziren jada.